

Done Petri aita santuaren erretaula. Morillas

Retablo mayor de san Pedro Papa. Morillas



Erretaula garrantzitsu hori oso kaltetuta zegoen ondo eta intsektu xilofagoen eraso larriaren ondorioz, zeinak pintura geruza eta zurezko euskarria kaltetzen ari baitziren. Berniz geruza horituta izateak eta taula polikromatu asko birpintatu izanak taulen benetako kromatismoari antzematea eragozten zuen.



Ondoen kolonizazioa.
Colonización de hongos.

Objektua ■ Objeto
Erretaula
Retablo

Egilea ■ Autor
Martín de Oñate eta bere lantegia. Pedro López de Marietak eta Tomás de Oñatek amaitu zuten obra. Martín de Oñate y su taller. Finalizaron la obra Pedro López de Marieta y Tomás de Oñate.

Kronologia ■ Cronología
1554-1559

Jatorria ■ Procedencia
Done Petri aita santuaren eliza. Morillas.
Iglesia de San Pedro Papa. Morillas.

Lege Babesa ■ Protección Legal
Eusko Jaurlaritzak kultura ondasun kalifikatua, monumentu kategoriarekin. EHAA, 8. zk., 2001eko urtarrilaren 11koa. Bien Cultural Calificado con categoría de Monumento por el Gobierno Vasco. BOPV nº 8, de 11 de enero de 2001.



Birpintatze baten azpian ezkutuan zegoen erretaularen amaiera data. **1559**
Fecha de finalización del retablo que estaba oculta bajo un repinte. **1559**

Este relevante retablo presentaba un ataque gravísimo de hongos y de insectos xilófagos que estaban afectando al estrato pictórico y al soporte leñoso. El amarilleamiento de la capa de barniz y los repintes localizados en numerosas tablas policromadas impedían apreciar el verdadero cromatismo de las tablas.



Ondoen xehetasuna.
Detalle de los hongos.

Egindako azterlanak

Infragorri errelektografiari esker, artistak taulak polikromatu aurretik egindako azpiko marrazkia eta konposizio aldaketak aztertu ahal izan dira.

Polikromia laginen analisiak erakutsi du azurita, bermiloia, gardinga eta kobre erretxinatoa erabili zirela, beste pigmentu batzuen artean, bai eta metalezko xaflak ere, urrezkoak eta zilarrezkoak, azken horiek korlatuak.





Infragorri errelektografia: konposizio aldaketa Ama Birjinaren aurpegian.
Reflectografía infrarroja: cambio de composición en el rostro de la Virgen.

Estudios realizados

La reflectografía de infrarrojos ha permitido estudiar el dibujo subyacente y los cambios de composición, llevados a cabo por el artista antes de policromar las tablas.

El análisis de muestras de policromía ha detectado el empleo de azurita, bermellón, cardenillo y resinato de cobre, entre otros pigmentos; así como de láminas metálicas de oro y plata, estas últimas corladas.



Pintura geruzen laginen irudi estratigrafikoa: urdina eta berdea.
Imagen estratigráfica de muestras de capas pictóricas: azul y verde.



Predelaren pintura baten xehetasuna. Esku hartu baino lehen eta ondoren.
Detalle de una pintura de la predela. Antes y después de la intervención.

Erretaula Aldundiaren eta Gotzaindegiaren arteko batzorde mistoaren hitzarmenaren bidez zaharberritu da. Esku hartzea 2006an eta 2018tik 2020ra bitartean egin dute Albayalde. Conservatio, Croma S. Coop. eta Petra S. Coop. enpresek, Zaharberrikuntza Zerbitzuaren zuzendaritza teknikoaren pean.

Este retablo se ha restaurado a través del convenio de la Comisión mixta, Diputación-Obispado. La intervención se ha realizado en los años 2006, 2018-2020 por las empresas Albayalde. Conservatio, Croma S. Coop y Petra S. Coop bajo la dirección técnica del Servicio de Restauración.